| 09 | FA/OF | 40-005 | 2022 |
|---|---|---|---|

*Departamentuko foru diputatuak honako foru agindu hau eman du gaur:*

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailburuordetzak 2022ko urtarrilaren 7an bidalitako idazkiaren bidez, foru aldundiei eskatu zaie eskola-kiroleko lehiaketak aldi baterako eteteko urtarrilaren 28ra arte; egun horretan, berriz aztertuko da neurri horrekin jarraitzeko beharra.

Hain zuzen ere, idazki horretan adierazten da ikasturteko lehen hiruhilekoa amaitu ondoren ikusi dela 2021-2022 ikasturte honen garapena egoera epidemiologikoak baldintzatzen duela, etengabe aldatzen ari baita. COVID-19ak eragindako pandemiaren seigarren olatuaren ondorioz, lehendakariak berriro deklaratu behar izan du osasun-larrialdiko egoera, gure gizarteko esparru guztietan prebentzio-neurriak hartzea areagotu ahal izateko.

Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren eta Hezkuntza Sailaren akordio bidez, hainbat prebentzio-neurri ezarri dira ikasturtea berriro ekiteko unean, eta horien artean dago "burbuila-talde" desberdinetako eta, batez ere, ikastetxe desberdinetako ikasleak nahastea dakarten eskolaz kanpoko jarduera guztiak etetea. Jarduera horien artean daude kirol-jarduerak ere.

Horregatik, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eskola-kiroleko lehiaketak aldi baterako bertan behera uzteko eskatu du, urtarrilaren 10etik 28ra arte, eta egun horretan berriz aztertuko da neurriarekin jarraitzeko beharra. Entrenamenduei dagokienez, ez dira zertan eten behar, eta prebentzio-neurriak betetzen direla ziurtatu beharko da. Hastapen- eta irakaskuntza-jardueretan, beraz, ez du eraginik izango, eta jarraipena izan dezakete, bizikidetza-talde egonkorretan («burbuilak») antolatuta.

Gipuzkoako Foru Aldundiak jarduera fisikoari eustearen aldeko eta debekuaren aurkako jarrera izan du, baldin eta indarrean dauden protokoloen araberako prebentzio-neurriak hartzen badira. Bide horretan ahalegin handia egin du eskola-kiroleko eragileei baliabideak eta laguntza emateko, eta konfinamendu-egoeretan ere jarduera mantentzeko.

Era berean, Gipuzkoako Eskola Kiroleko Lurralde Kontseiluaren deialdia egin zen, eta urtarrilaren 12ko bilkuran

*El diputado foral del Departamento, con fecha de hoy, ha dictado la siguiente orden foral:*

Mediante escrito de fecha de 7 de enero de 2022, remitido por la Viceconsejería de Salud de Gobierno Vasco, se ha instado a las diputaciones forales a suspender temporalmente las competiciones de deporte escolar hasta el día 28 de enero, fecha en la que se reevaluará la necesidad de continuar con dicha medida.

En efecto, en el citado escrito se indica que una vez finalizado el primer trimestre del curso escolar se ha observado que el desarrollo del presente curso escolar 2021-2022 está siendo condicionado de nuevo por la situación epidemiológica en cambio constante. La sexta ola de la pandemia causada por el COVID-19 ha obligado a declarar nuevamente la situación de emergencia sanitaria por parte del lehendakari, para poder intensificar la adopción de medidas preventivas en todos los ámbitos de nuestra sociedad.

En este contexto, mediante acuerdo de los departamentos de Salud y Educación de Gobierno Vasco, se han establecido una serie de medidas preventivas ante el reinicio del curso escolar entre las que se encuentra la de suspender todas las actividades extraescolares que impliquen mezclar alumnos/as de distintos "grupos burbuja" y sobre todo, de distintos centros escolares. Entre estas actividades se encuentran también las deportivas.

Es por ello que desde el Departamento de Salud del Gobierno Vasco se ha instado a suspender temporalmente las competiciones de deporte escolar desde el lunes 10 de enero hasta el día 28 del mismo mes, fecha en la que se reevaluará la necesidad de continuar con la medida. Respecto a los entrenamientos, que no tienen por qué interrumpirse, deberá asegurarse el cumplimiento de las medidas preventivas. Las actividades de iniciación y enseñanza, por lo tanto, no se verán afectadas y pueden tener continuidad organizándose a través de grupos estables de convivencia ("burbujas").

La Diputación Foral de Gipuzkoa ha venido manteniendo una posición favorable al mantenimiento de la actividad física y contraria a su prohibición, siempre que se adopten medidas preventivas conforme a los protocolos vigentes. En ese camino ha hecho un importante esfuerzo para generar recursos y asistencia a los agentes del deporte escolar para mantener la actividad incluso en situaciones de confinamiento.

Asimismo, se procedió a la convocatoria del Consejo Territorial de Deporte Escolar de Gipuzkoa, que en sesión del 12 de enero

aho batez erabaki hau onartu zen: *"Eusko Jaurlaritzari jakinaraztea Gipuzkoako Eskola Kiroleko Lurralde Kontseilua ez dagoela ados eskola-kirolaren inguruan orain arte hartutako neurriekin, ezta oraingo honetan proposatzen diren neurriekin ere".*

Hala ere, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak egindako errekerimenduari erantzunez, eskola-kiroleko lehiaketa-jarduerak eten egingo dira aldi baterako urtarrilaren 28ra arte.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentuko Foru Diputatuak

## EBAZTEN DU

**Lehenengo.-** Eskola-kiroleko lehiaketak aldi baterako bertan behera uztea.

**Bigarren.-** Etendura hau urtarrilaren 28ra arte egongo da indarrean.

**Hirugarren.-** Lurraldeko kirol-federazioak eta eskola-kiroleko lehiaketak antolatzen dituzten gainerako erakundeak gaitzea eskura dituzten antolamendu-neurriak har ditzaten, lehiaketa aldatzeko, egokitzeko, atzeratzeko edo beharrezkoak diren beste neurri batzuk hartzeko.

Donostian, 2022ko urtarrilaren 13an

aprobó por unanimidad el siguiente acuerdo: *"Trasladar al Gobierno vasco que el Consejo Territorial de Deporte Escolar de Gipuzkoa no está de acuerdo con las medidas adoptadas hasta el momento en relación con el deporte escolar ni con las medidas que se proponen en esta ocasión".*

No obstante, atendiendo al requerimiento formulado por el Departamento de Salud de Gobierno Vasco, procede declarar la suspensión temporal de las actividades de competición de deporte escolar hasta el día 28 de enero.

El Diputado del Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes de esta Diputación foral de Gipuzkoa

## RESUELVE

**Primero.-** Suspender temporalmente las competiciones de deporte escolar.

**Segundo.-** La suspensión decretada tendrá vigencia hasta el día 28 de enero.

**Tercero.-** Habilitar a las federaciones deportivas territoriales y demás entidades organizadoras de las competiciones de deporte escolar a adoptar las medidas organizativas a su alcance para modificar la competición, adaptarla, aplazarla o adoptar otras medidas necesarias.

San Sebastián, 13 de enero de 2022

**Idazkari teknikoa / El Secretario Técnico**

IGNACIO SAINZ PAREDES - 15381830M

Firmado digitalmente por IGNACIO SAINZ PAREDES - 15381830M
Fecha: 2022.01.13 13:46:59 +01'00'

**Sin.: / Fdo.: Iñaki Sainz Paredes**